

## ASKATASUNEAN HEZI

Jainko Aitak aske egin gintuen. Aske eta gure egintzen erantzule gara. Askatasun osoz Bera aukera genezan eman zigun erabakitzeke ahalmen hori.

Askatasuna Jainkoak egin digun egundoko oparia da, "giza duintasuna" deitutakoaren ezaugarririk garrantzitsuenetakoa.

Maitatzean datza; Jainkoa gauza guztien ginetik maitatzean. Eta kontua maitatzea bada, nola behartu inor maitatzera? Hain zuzen ere, maitasunagatik, aske izan behar dugu. Maitasunak nor maitatu aukeratzea dakar. Maitasuna ezin da derrigorrez lortu. Jainkoak, beraz, ez gaitu Bera maitatzera behartzen. Bera askatasunez maita dezagula nahi du.

Jainko Aitak aske egin gintuenez, guk, gurasook, askatasunean hezi behar ditugu gure seme-alabak, beraien ere Hura hauta dezaten.

*"Gizakia hezi daiteke aske delako eta aske izan daiteke hezi egiten delako; askatuz baizik ez da gizakia hezitzen, heziz baizik ez da askatzen".*

Hezitzea, gizakiari garatzen laguntzea da, gizakia bizitzarako, aldaketarako, prestatzea, bakoitzaren onena, bere ahalmena, ateratzea. Pertsonak on, zintzo, langile, fidagarri, eskuzabal... egitea.

Familia, zehazki gurasoak, dira heziketaren arduradun eta maitasunezko elkarte horretan hazten dira seme-alabak balioetan.

Askatasunean hezteak, heziketa hori jasotzen duenaren autonomia eta erantzukizun gehiago suspertzea eskatzen du. Ekimenak izateko, aukeratzeko, zentzuz jokatzeko gaitasuna jadesi behar dute. Ezinbestekoa da beraien benetako aukerak ezagutzea, begiratzen eta arrazoitzen irakastea, ez ezartzea, une bakoitzean jokabiderik egokiena zein den ulertaraztea. Guztia, lekukotasuna emanez, gurasook uste sendoen ispilu garelako. Beraien ulertuko dute zer den ona beren adimenarekin eta beraien borondatez aurrera eramango dute.

Horretarako, honako hauez balia gaitzke: beraien adin eta izaerara egokitutako mandatu txikiak; diru edo denbora apur bat administratzen utzi; beraiengan eragina duten erabaki batzuetan iritzia ematen edo iritziren bat hartzen utzi.

Askatasuna uzta daiteke autoritate eta diziplinarekin, izan ere, hauek gabe oso zaila da hezitzea. Hori bai, autoritate hori positiboa izango da, muga eta helburuak jarriko ditu, ondo eta gaizki dagoena erakutsiko du, baina ez nagusikeriaz, ezta larregizko babesenez, maitasunez baizik. Horretarako ezinbestekoa da malgutasuna, egoerak eskatuz gero zuzentzeko edo iritzi aldatzeko gauza izatea, une jakin batean seme-alabaren jokaeraren zergatia ulertzea... Horrela, giro positibo eta konfiantzazkoa sortuko dugu eta egokitasunez gauzatuko dugu autoritatea.

Laster gure seme-alabak independenteak izango dira biologia eta psikologia arloan; ez izen beldurrik askatasunari; irakats iezaiezu pentsatzen eta erabakitzen askatasunez aukera dezaten onena.

Zaila da askatasunean heztea, baina nahitaezkoa da. Badago gurasorik, askatasun-grina dela-eta, hezitzen ez duenik eta baita, hezkuntza-grina dela-eta, askatasuna errespetatzen ez duenik. Eta bi muturrak dira okerrak.